

Hau mundu zonbi hau

Zein da ikusi duzun azkenengo pelikula? *New Moon*, *Crepúsculo* sagako bigarre-na, badakizu, banpiro eta gizotso nera-beei buruzko hura.

Ez da egia izango.

Ez, ez da egia. Hori ez da ikusi dudan azkena, baina pentsatu dut eman ahal zigula zer esana. Gizotsoek batez ere. *Wom*, ze gorputzak! Emango nieke larru-pasada bat. Botagarri daude zokotronkoak. Zuri, berriz, egingo nuke, gehiago tiratzen dizula protagonista banpiroaren lerdentasun tormentatuak, dotorezia zurbilak, eta abar.

Aitormena baino ez didazunez onartuko... Gainera, abantailaz zabilta: badakizu giharrek ez nau-tela bereziki erakartzen. Gizotsoen aurretik, eta terrorezko pertsonaia guztien gainera, banpiroen xarma dago. Gaizkiaren alderdirik anbiguo eta erakargarriena.

Banpiroak? Zeharo XIX. mende-ko produktua dira. Erromantizismoaren seme zintzoak baino ez dira, eternitatearen zorra larrutik ordaintzen duten izaki bohemiak. Drakula, Lord Byron edo Fausto doktorea ezpal berekoak dira. Gutaz ez dute ezer esaten. Zalan-tzarik ez, XX. mende hau mende zonbia da.

Mende hau?

Lehen hamarkada aurreko mende-ari dagokio oraindik. Edozein modutan, ezin hogeigarren (zonbigarren?) mendea amaitutzat eman, Michael Jacksonen heriotzara arte. Jacksonen aurpegi birrin-dua beste argudiorik ez nuke behar, XX. mendea zonbitarra izan dela frogatzeko, baina pentsa ezazu, bestela, munstro hauek eragiten duten mutazio parazientifiko eta kutsatzearen paranoian (HIES edo A gripearekiko beldurraren paraleloa izan daitekeena). Gaur egungo debeku nagusiak ez ditu Elizak ezartzen, osasun printzipioek baizik.

Orain esaten dizula, horrekin lotuta, Rikardo Arregi Diaz de Herediari hitzaldi batean aditu nion oraingo gazteei ez zaiela, ez zaigula, su eternalarekin meha-



JOSU SANTESTEBAN

txatzen, gogoak agintzen duen eran egitea-gatik, gaixotzearekin baizik.

Eta zonbitasunaren ezaugarriak ez dira osasunaren arloan gelditzen. Adar sozio-politikoak ere badu, banpiroen indibidualismoaren aldean, zonbiek taldea osatzen dute, alienazio argian daude eta gaizki anto-latuak (zonbi film bat ikusi duen orok badakienez). Zizeken hitzetan esateko, “zibilizazioaren hondakin organikoa” dira. Honi buruzko artikulua bat idatzi dut nire blogean. Pasako dizut lotura.

Zuk ere Zizek aipatu behar duzu? Dagoeneko ez gaude inon libre.

Zonbi moduan bizi, biziraun edo hiliraun; zonbi moduan bozkatu eta kontsumitu. Eta, zenbaite-tan, zonbi moduan protestatu. Ez dirudi oso erakargarria baina hau da egokitu zaiguna.

Aurten arte; aurten, zuk esan bezala, XXI. mendea hasten baldin bada. Akaso post-zonbiak izateko suertea izanen dugu. Nik hori behintzat argi daukat. Beldurrezko film batean bezala, ihesbiderik gabe banengo, zentzuzkoena eginen nuke, hau da, neure buruaz beste egin, inoren hatzapparretan sufritu behar izan baino lehenago.

Irtenbide hori ere oso hemeretzigarren mendekoa da, adiskide. Banpiroak, suizidioa... Ene, beste egun batean gelditu gaitz-ke karlistadez ere hitz egiteko.

Hor ez nauzu harrapatuko. Onartzen dut erromantizismoak ongi zamatuta duela buru-hilketa (poetek hor izan dute erru handia) Niaren muturreko minaren irteera natural moduan agertzearaino. Hortik, XX. mendeko suizidioaren izaera psikiatrikora pasa gara. Baina nik uste suizidio postmoderno topatu dudala. Interneteko gizarte sareetatik norberaren arrastoa guztiz desagertzen duen programa (www.suicidemachine.org) joko dut, gehiegi *zonbitu* baino

lehenago.

Eta orduan zeini idatziko nioke nik? ☹️ ■

«
Zonbi moduan bizi, biziraun edo
hiliraun; zonbi moduan bozkatu
eta kontsumitu. Eta, zenbaite-tan,
zonbi moduan protestatu.
»
Ez dirudi oso erakargarria
baina hau da egokitu zaiguna



irudia:

Antton Olariaga